BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3880

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 22koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, artzain txakurren 2011ko lehiaketa ofizialak finkatzekoa.

Artzain txakurren inguruan lehiaketa eta bestelako gertakizunak antolatzen dituzten elkarteen erregistroa sortu, eta lehiaketa nahiz gertakizun ofizialak aintzatesten dituen Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1999ko abuztuaren 16ko Aginduaren (165 zenbakiko EHAA, 1999ko abuztuaren 30ekoa) 2. artikuluak xedatutakoarekin bat, eta agindu horretan eskatutakoak beteta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Artzain txakurren 2011ko lehiaketa ofizialak finkatzea, ebazpen honi atxikitako eranskinean azaltzen den moduan.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 22a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA ZUZENDARIAREN 2011KO EKAINAREN 22KO EBAZPENAREN ERANSKINA

ARTZAIN TXAKURREN LEHIAKETA OFIZIALAK 2011. URTERAKO

ANEXO A LA RESOLUCIÓN DE 22 DE JUNIO DE 2011 DE LA DIRECTORA DE AGRICULTURA Y GANADERÍA

CONCURSOS OFICIALES DE PERRO DE PASTOR PARA EL AÑO 2011

Lehiaketa *Concurso*	Eguna *Fecha*	Lekua *Lugar*	Elkarte Antolatzailea *Asociación Organizadora*
Arabako Artzain Txakurren Txapelketa *Campeonato de Perros de Pastor de Álava*	2011-09-10	Murgia	Arabako Artzain Txakurren aldeko Elkartea (ARATE)
Bizkaiko Artzain Txakurren Txapelketa *Campeonato de Perros de Pastor de Bizkaia*	2011-09-11	Mungia	Bizkaiko Artzain Txakurren Elkartea (BATE)
Gipuzkoako Artzain Txakurren Txapelketa *Campeonato de Perros de Pastor de Gipuzkoa*	2011-09-04	Legazpi	Gipuzkoako Artzain Txakurraren Elkartea (GIATE)
Euskadiko Artzain Txakurren Txapelketa *Campeonato de Perros de Pastor de Euskadi*	2011-09-18	Atxondo	Durango Merinaldeko Adizkideen Gerediaga Elkartea
Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa *Campeonato Internacional de Perros de Pastor*	2011-09-25	Oñati	Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa Antolatzaileen Elkartea